

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKER protagonista izango da fabrikazio aurreratuari buruzko Txinako eta Mexikoko foro garrantzitsuetan

- ▶▶ *Nazioarteko Abiadura Handiko Mekanizazioaren XII. Biltzarraren antolatzaileetako bat da zentro teknologikoa. Biltzarra, lehenengo aldiz, Txinan egingo da, hil honen 18tik 20ra bitartean*
- ▶▶ *Makina-erremintan espezializatutako enpresentzat topagunea izan nahi du biltzarrak, eta 20 herrialde baino gehiagotako ordezkariak izango dira han*
- ▶▶ *Gainera, IK4-TEKNIKERek parte-hartze nabarmena izango du Mexikon urriaren 12tik 15era bitartean fidagarritasunari eta mantentze-lanei buruz egingo den foroan*

(Eibarren, 2015eko urriaren 15an).- IK4-TEKNIKER euskal zentro teknologikoak zenbait teknologiatan duen ezagutzaren eta esperientziaren berri emango du mekanizazioari eta mantentze-lan prediktiboari buruzko nazioarteko bi foro garrantzitsutan. Hil honetan egingo dira, bata Txinan eta bestea Mexikon.

Abiadura handiko mekanizazioari buruzko biltzarra, [International Conference on High Speed Machining](#) (HSM Conference), hil honen 18tik 20ra bitartean egingo da Nanjing-en, Txinan, eta zentro teknologikoa antolatzaileetako bat da.

Aurreko edizio guztiak Europan egin dira, baina, aurten, lehenengo aldiz, Txinan egingo da, Asia garrantzitsu bihurtzen ari baita fabrikazioaren alorrean.

"Azken urteotan, manufakturako produktuen munduko merkatu handienetako bat bihurtu da Txina, eta mekanizazioaren teknologiaren ikerketak gero eta interes handiagoa eragiten du herrialde horretan", adierazi du IK4-TEKNIKEReko Merkatuko zuzendari Luis Uriartek.

Aurtengo biltzarra produktibitateko eta kalitateko aurrerapenei buruzkoa izango da, eta 20 bat herrialdetako 150 parte-hartzailetik gora izango dira.

Foroaren antolatzaileetako bat izateaz gain, IK4-TEKNIKERek batzorde zientifikoetan eta exekutiboetan parte hartuko du hitzaldi hau emanaz: *“New strategy for trajectory generation in the transition of two non-aligned segments”*. [Fagor-Aoteke](#)ekin lankidetzan egindako I+Gko proiektu baten emaitza da.

Fabrikazio aurreratuan eta makina-erremintan espezializatutako beste erakunde batzuek babesten dute ekitaldia. Besteak beste, hauek: [National University of Aeronautics and Astronautics](#) (Nanjing, Txina), [Darmstadt-eko Unibertsitate Teknikoko PTW](#) institutua (Alemania), [Research Centre of Manufacturing Technology](#) (Praga, Txekiar Errepublika) eta [Ecole Nationale Supérieure d’arts et Métieres](#) (Metz, Frantzia).

Biltzar honekin batera, Nazioarteko AMB Azoka izango da: Txinako nazioarteko makina-erremintaren eta mekanizazioaren azoka nagusia.

Mantentze-lan prediktiboak lehiakortasuna handitzeko

Ameriketako kontinentean, zentro teknologikoak esku-hartze nabarmena izango du [Fidagarritasunari eta Mantentze Lanei buruzko X. Biltzar Mexikarrean](#). Hil honen 12tik 15era bitartean egingo da, Leonen, Mexikon.

Hona hemen foroaren helburu nagusia: industriaren etorkizuneko azken joerak zein izango diren aztertzea, eta azaltzea industriaren ekoizpenerako zer abantaila dituen analitika prediktiboa eta akatsen aurreikuspena mantentze-lanen prozesuetan sartzeak.

IK4-TEKNIKERek *“4.0 Industria. Mantentze-lan prediktiboak, sistema adimendunak, teknologia eta adimen artifiziala etorkizuneko fabrikari”* izenburuko hitzaldia emango du. *Big Data*ren alorrean sartutako datuen analisisan eta prozesamenduan eta makinaren portaeran oinarritutako mantentze-lan prediktiboaren teknikak azalduko ditu.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio

aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia edozein zereginen zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728